

## Valentziera

# PPk eragindako gurutzebidea

Galdetu valentzieraren osasunaz soziologoari, idazleari, unibertsitateko irakasleari eta jarri martxan kronometroa. Segundo gutxitan PP hitza edo Valentziar Gobernu hitza aterako dira, seguru. Eskutik helduta doaz bertako hizkuntzaren egoera eta valentziar erkidegoko Gobernuaren jarrera. Marearen kontra ari dira valentziera hiztunak, eta kultur eragileak, eta lurraren aldeko elkarteak, eta...

### ONINTZA IRURETA

VALENTZIA HIRIBURURA hurbildu gara. Han, PPrentzaren agintean itzalean –valentziar erkidegoan botoen %52,22 eskuratu zituen 2007ko hauteskundeetan–, valentziera eta valentziar nortasuna indartu nahi dituzten hainbat elkarte eta jenderek in egin dugu topo. Escola Valencianako lehendakari Diego Gómezi egin diogu elkarrizketa. Federazio horrek 100.000 lagun ditu inguruan; besteak beste irakaskuntzan valentziera hizkuntza ardatz izatea aldarrikatzen dute. Ca Revoltara ere jo dugu. Revolta izeneko talde politiko ezkertiarretik sortutako elkarte da. Valentzia hiriburuan ere agintzen duen PPK lanerako espaziorik ematen ez dien gizarte mugimendu eta kultur elkartei egiten die tokia bere egoitzan. 2007ko hauteskunde aurretik, PP tronutik kenduko zutenaren itxaropen handiz, Ca Revoltaren egoitzan abiatu zen *Ja en tenim prou* (nahikoa da) proiektua. Bada valentzieraren aldeko lanean ahaztu ezin den beste erakunde bat: Centre d'Octubre. 6.000-7.000 bazkide dituen elkarte horren berri aldizkari honetan bertan eman genuen duela bi urte (2015. zbk, 2017-02-11).

Etsi puntua begi bistakoa da. 2007ko hauteskundeak PPK ez irabaztea espero zuen askok, tartean aipatu ditugun elkarteetako gure solaskideek. Politika urbanistiko eta kultural erasokorrak itzali eta bestelako politiken itxaropena zegoen. Valentzierarekiko hizkuntza politikak ere arnasa hartuko zuelakoan ziren. Denek azpimarratu digute PPK hauteskundeak irabaztea belarrondoko galanta izan dela. Batzuek diote gizarte mugimenduek, hauteskunde aurreko sukarraren ondoren, behera

egin dutela, etsituta. Beste batzuk indartsuago, edo sikiera, baikorrago aritu zaizkigu, esate baterako Diego Gómez. 100.000 pertsona biltzen dituen federazioa bizi-bizirik dago.

Ezertan segi baino lehen, bertako hizkuntzari deitzeko moduz kontuak argi uztea komeni da. Aipatutako elkarteetako kideei galdetu diegu ea zer iritzia duten valentziera ala katalana hitza erabiltzearen eztatidaz. Azalpenak eman dizkigute –kazetariari eta hainbat euskara teknikariri– bertakoak ez garelako eta kilima bila ez gabela ari badakitelako. Eztabaidak berez, inolako funtsik ez duela argi dute. Pazientziar erantzun dute, baina gaiak eragiten dien amorrazioa nabaria da. PPK Kataluniarekiko bereiztu dezaten aldarrikatzen du valentziera bertako hizkuntzat. Aldarrikapenak aldarrikapen, gero, valentzieraren aldeko hizkuntza politika hutsaren hurrengo da. Gure hizketakideek katalana zein valentziera deitzen diote bertako hizkuntzari, askotan valentziera darabilte Kataluniako hizkuntz errealitatearekin ez nahasteko. Erreportajearen valentziera erabiliko dugu, besterik gabe.

#### Nahikoa da

Rafael Xambó soziologoa eta musikaria da, baita Ca Revolta elkarteetako kidea ere. *Ja en tenim prou* plataformaren sortzaileetako izan zen 2006 bukaeran, hauteskunde atariko giro gorrian. Proiektu hori termometro polita da hauteskunde ondorengo gizarte nekatuari neurria hartzeko.

Ikus-entzunezko proiektu bat egitea bururatu zitzaizen hiru bat laguni eta haiekek elkartu



**el valencià és futur**

TROBADES  2008



## Ca Revolta, matxinadaren etxea

500 bazkide ditu elkarteak, baina kopuru horrek ez du Ca Revoltaren egoitzan dagoen mugimendua adierazten. Pancho Villaren estiloan egiten omen dute lan, antolaketa zorrotzik gabe, burokrazia gutxirekin. Saiatzen dira Valentzia hirian mugimenduan dagoen guztia egoitzara hurbiltzen.

Eraikin osoa daukate erosita. Goiko solairuetan, elkarteko kide batzuek etxebizitza erosi zuten eta beheko bietan Ca Revolta dago. Rita Barberá hiriko alkatearentzat arerioa bizi da egoitzan. Han biltzen dira Compromis del territori-koak, baratzearen aldeko ekintzan 130.000 sinadura bildu zituztenak. 100.000tik gora lagun biltzen



ARGIA

Ca Revoltan, afari legea egin ondoren. Ezkerrean goian; elkarteko kide bat, alkandora zuriarekin Turkiako Justizia atzetik duen kurdua hitzaldia eman berrian, jertse beltzarekin Rafael Xambó elkarteko kidea, eta Gipuzkoako hiru euskara teknikari. Eserita, ezker eskuin Ca Revoltako kideak eta erdian kurduaren interpretea.

dituen Escola Valencianako haurrak ere hor elkartzen dira. Musikak, antzerkiak eta bideo lehiaketek dute lekua. Talde feministek han

dute txokoa, etorkinek ere bai...

Octubre (Centre de Cultura Contemporania) kultur gunea ez bezala, Kataluniaren periferia baztertuta sentitzen dira eta bidea bakarrik egitea aldarrikatu dute. Octubreren, jarduerak antzatzak dira, baina baldintza bat dago: denak valentzieraz egin behar dira. Ca Revoltak ez du halako araurik, valentziera modu naturalean erabiltzen da. Elkarteko kide Berta da adibide polita. Gurasoak andaluziarrrak eta bera gaztelania hitzuna. Hasieran lotsa ematen bazion ere, herdoilduta

zuen valentzieraz hasi zen hitz egiten, Ca Revoltan komunikazio hizkuntza hori baita.

ziren 2006ko Gabon aurretik: errealizadorea, aktorea eta Xambó. Hurrengo bilerara, Ca Revoltako egoitzara, 15-20 lagun bildu ziren eta hirugarrenean ez ziren denak bilera gelan sartzen. Hauteskunde aurreko hilabeteetan giroa bero-bero zegoen. *Ja en tenim prou* plataforman ikus-entzunezko profesionalak, artistak, kultur elkarteak eta gizarte mugimenduak batu ziren. Asmoa gizartearen kritika eta iritzia sustatzea zen, gizarte kontzientzia eragitea, herritarrek parte hartzea, Valentziako Generalitatearen politikez (urbanistikoaz, kulturazkoaz, hizkuntzazkoaz...) nazkatuta baitzegoen asko eta asko. *Ja en tenim prou* plataformak arra-

kasta handia izan zuen eta askorengan ilusioa piztu zen. Alabaina, heldu ziren 2007ko hauteskundeak. PPK gehiengo atera zuen eta gizarte mugimenduen euforia hanka azpira jaitsi zen. Xambók hala dio: "Orain jendea gogogabetuta dago. Hauteskundeak baino hilabete batzuk lehenago jendeak itxaropena zeukan, baina desastre ederra izan da". Ca Revoltaren sostenguz piztutako mugimendu horretatik ikasteko asko dutela dio. Alegia, hauteskudeei lotuta ezer egiterik ez duela merezi. 2007koa salbuespena izan zen. Ca Revoltaren helburua hauxe litzateke: epe luzera kontzientzia kritikoa herritarra bultzatzea eta balore solidario eta

ESCOLA VALENCIANA



Escola Valencianak udaberri oro egiten ditu *Trobades*-ak, alegia, valentzieraren erabilera sustatzeko bilkurak, kultur jardunaldiak eta abar. 200.000 lagunek hartzen dute parte. Ezkerreko argazkia Benicassimen egindako bilkurakoa da. Behean, bikote linguistikoa. Mintzalaguna moduko proiektua 2005ean hasi zuen Escola Valencianak eta 2.500 bikote izan dituzte orain arte.



ESCOLA VALENCIANA

alternatiboak zabaltzea, inoren alderdiren periferia izan gabe. Ez ziren izan inolako alderdiren transmisio bide, baina berak dioenez, “dena batera etorri zen: hauteskundeak eta kaleko mugimendu indartsua. Aldaketarako behar larria zegoen. Uste genuen denok batera mugitu behar genuela PP alboratzeko. Porrota izan da ezker instituzionalarena, PSOErena, eta baita Compromis-ena –Esquerra Unida eta Bloc Nacionalista koalizioan– ere”.

*Ja en tenir prou* ez da desagertu hauteskundeetako zartadaren ondoren. Webgunean ([www.jaentenimprou.org](http://www.jaentenimprou.org)) dauka segida. Ikus-entzunezko lanak eta albiste andana aurki daitezke. Lurraldearen defentsan ari direnek zintzilikatzen dituzte albisteak, metroko istripuan biktima izan zirenek ere bai, Valentzia hiriburuko XIX. mendeko Cabañal marinel auzoa babestu nahi dutenek... Etsipenak jota ez gelditze-ko gunea da.

#### Ordezkapen linguistikoa Canal 9ren bidez

Telebista kontuekin hasi aurretik, 2005eko (berrienak) datu soziolinguistiko orokor batzuk eman ditzagun. Gaitasunari dagokionez, Valentziar Herrialdeko biztanleen %73,3ak nahiko ondo edo oso ondo ulertzen du valentziera eta %52,1ak hitz egiteko gaita-

sunu du. Erabilerari dagokionez, etxean %35,1ak beti edo ia beti darabil valentziera. Lagunekin %30,5ak eta kalean %16,5ak. Hamar urtean azken hiru ehunekoak hamar puntu jaitsi dira.

Rafael Xambó Universitat de Valénciako irakaslea da, soziologoa. Unibertsitatean bertan, hizkuntza erabilerari buruzko ikerketan ari da lanean. Hizkuntzaren osasunaz gehien kezkatzen duena ez da eremu hori, ordea. Telebistak bultzatzen duen ordezkapen linguistikoak arduratzen du. Canal 9n gertatzen dena azaldu du. Etxean egindako bi telesail daude: *Singles* eta *La alquería blanca*. Biak dira valentzieraz, baina bietan ordezkapen linguistikoaren fenomeno nabaria da. *Singles* telesaila tabernan garatzen da eta bertara goiko solairuko gazteak joaten dira. Gazteek euren artean valentzieraz egiten dute, eta tabernari gaztelania hitzunak zerbait esan orduko gaztelaniaz hasten dira. Tabernariak gazteak valentzieraz ari direnean dena ulertzen du. Xambók hala dio: “Horrek adierazi nahi du zure hizkuntzak ez duela ezertarako balio, hizkuntza menperatzailean hitz egiten badizute aldatu eta ixo! Kataluniako TV3n ez duzu horrelakorik ikusiko. *La Juani* telesaileko Juani andaluziarrak gaztelaniaz hitz egiten du, baina besteek katalanez egiten diote. Noski, hemen

**Valentzia hiriburuan  
%90ak ulertzen du  
valentziera eta  
erabili %9ak. Rafael  
Xambó  
soziologoaren  
ustez, galdutakoa  
berreskura daiteke,  
baina hizkuntza  
politikarik gabe ez**



Diego Gómez, Escola Valencianako presidentea  
«90.000 haurrek nahi dute valentzieraz irakurri eta idatzi,  
baina eskaintzarik ez dago»

Escola Valenciana, Hizkuntzaren aldeko Elkartearen Federazioa da. 1984-85 urteetatik ari zen hainbat gizarte mugimendu valentzieraren aldeko eginahalean, eta batik bat, hezkuntzan. Eskualde mailako elkarteak dira eta 1990ean federazioan batu ziren. Irakasleak, gurasoak, mota guztietako kultur elkarteak (musika, antzerkia, animazioa...) eta udalak eta mankomunitateak batzen dira.

Escola Valenciana valentzieraren aldeko mugimendurik indartsuena da gaur egun Valentziar Herrialdean.

### Zein da Escola Valencianaren helburua?

Gure helburua valentziera defendatzea da. Hasierako asmo nagusia hizkuntza eskolan normalizatzea zen. Duela urte batzuek geroztik erabilera sozialak arduratzen gaitu bereziki. Eskolan bai, baina gero kalean behar dugu valentziera: zinema, musikan, merkataritzan... Udaberri oro eskualde mailako 17 jaialdi antolatzen ditugu eta 200.000 pertsona biltzen dira. Helburua horixe da, valentziera kalera ateratzea jolas giroan eta alai, eta era berean, aldarrikatzaile.

### Nolako ekintzak antolatzen dituzue valentziera sustatzeko?

Esparru anitzetan aritzen gara. Bikote linguistikoak dauzkagu, alegia, valentziera ikasi nahi dutenei lagunduko dien boluntario taldea. Bestalde, zinema eskolara hurbiltzen saiatzen gara eta rock musikako jaialdia antolatzen dugu urtero. Kanpainak ere egiten ditugu, esate baterako, haurrak valentzierako eskolan matrikulatzekoak.

Gure nahia da jendeari helaraztea haurrek hizkuntza menderatzea baikorra dela.



ARGIA

Dena den, harago joan nahi dugu. Erakutsi gura dugu baikorra dela nork bere hizkuntza maitatzea eta norberak sinestea valentzieraz bizi daitekeela. Zeren ez dugu ahaztu behar valentziera legezkoa dela, hots, legeak valentziera erabiltzeko eskubidea ematen didala.

### Valentziar Herrialdeko eskoletan nola egituratzen da valentzieraren irakaskuntza?

Panorama konplexua da. Kontuan hartu behar da, batetik, legez bereizita daudela gaztelania hitzunen eremuak eta valentziera hitzunenak. Bestetik, ikastetxeen autonomia eskubidea dago tartean. Eta azkenik, norbanakoaren eskubidea dago, hau da, valentziera haurrei irakatsi nahi ez dien gurasoen eskubidea.

### Nola islatzen da hori hizkuntz ereduetan?

Lau dira. Lehenengoak irakaskuntza valentzieraz eskaintzen du, hizkuntza horretan irakurri eta idazteko. Bigarrena murgiltze eredu da, hau da, valentziera hitzuneko eremuetan dauden gaztelania hitzuntzat. Haurrak gaztelaniaz hasten

dira eta valentzierara pasatzen dira. Hirugarrenaren bidez valentziera poliki-poliki jasotzen dute haurrek. Horrela behar lukeela dio ereduak, gero ez da hala gertatzen. Laugarren ereduaren dena gaztelaniaz egiten da, valentziera ikasgaia ezik. Egitura horren helburua zen haurrek bi hizkuntzetan gaitasuna lortzea.

### Esan duzue gurasoek valentziera ez ikasteko eskubidea aldarrikatzen dutela.

Ez dute nahi seme-alabek valentziera ikasterik. Ados, baina ume horiek ez dira elebidunak izango. Eta bestalde, eskubidea urratzen dietela diote. Katalunian zenbat gurasok eskatu dute eskubide hori betetzeko? 28k? Bada Valentziar Herrialdean 90.000k nahi dute valentzieraz irakurtzea eta idaztea, baina eskaintzarik ez dagoenez, lehen aipatu dizudan hirugarren eredu horretan sartzen dituzte.

### Eta eredu horretan ez dute ikasten valentziera.

Ez. Hori ez dugu guk esaten, hezkuntza kalitatea ebaluatzeaz arduratzen den erakunde valentziarrak dio hori. Orain hiru hizkuntzetan gaitasuna lortzearen kontuarekin gabilta, valentzieraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Gu ez gaude horren kontra, hiru elebidunak badira primeran eta eleantzik badira hobe, baina lehendabizi izan daitezela elebidun.

### Zein itxura du etorkizunak?

Boteila erdi beteta edo erdi hutsik ikus daiteke, baina 25 urte eta gero 100 ikasletik 25i baino ez bazaie irakasten irakurtzen eta idazten valentzieraz, ezin dugu 75 urtez itxaron. Zerbait egin beharko da, eskolan eta eskolatik kanpo.

kalean, gaztelaniaz ari zaizun bati valentzieraz egiten badiozu edukazio txarrekoa zara, Katalunian ez. Hemen hizkuntza politika babesgarriarik ez dago, egoera asimetrikoa da, valentziera beti da hautazkoa, zentzugabea da”.

### Valentzieraren atzerakada gogorra

Unibertsitatean valentzierak duen presentziak galdetu diogu Xambóri eta orokorrago, Valentzia hiriko panoramaz erantzun digu: egunero ko hizkuntza erabilgarria gaztelania da, valentzierak balio errituala du, espazio publiko eta soziala galdu du. Hiritarren erdiak baino

gehiagok daki valentziera, %90ak ulertzen du eta erabili %9ak. Soziologoaren ustez, galdutakoa berreskura daiteke, baina hizkuntza politikarik gabe ez. Politika gabezia horren adibide jarri ditu unibertsitate publikoak. Valentzieraz aritzeko eskariak beti gaintzen du eskaintza. Ikasgai bereko talde bat baino gehiago antolatzen bada, orduan valentzierako taldea osa daiteke, edo valentzieraz irakas daiteke irakasleak hizkuntza horretan gaitasuna badu. Irakasleek valentziera ikasteko ikastaroak badaude, baina ez dira derrigorrezko. Borondatearen linboan ia dena. ■